

ALEGIA / Ipuin kontaketa bihar herriko liburutegian

ALEGIA .DV. Eguberritako kultur ekitaldien egitarauaren barruan, bihar, abenduak 21, ipuin kontaketa saioa antolatu da Galtzaundi Euskara Taldearekin elkarlanean.

Idoia Sanchez arituko da ipuin kontaketan. Saioa Alegiako Udal Liburutegian izango da arratsaldeko 18:15ean.

Idoia Sanchez dagoeneko Tolosaldeako hainbat herritan aritu da ipuin kontaketan, besteak beste, Leaburun, Gaztelun, Iruran, Altzon, Berastegin, Elduainen eta Baliarrainen.

Idoia Sanchezek Galtzaundi aldizkariari eskainitako elkarrizketa batean esaten duen bezala, bere mozorroarekin eta bere laguntzaile Loretxurekin ibiltzen da ipuin kontaketa batetik bestera.

Ez du eszenatokirik jartzen, bere ustez, garrantzitsuena umeen eta ipuinaren artean sortzen den komunikazioa baita.

Bestalde, zerbaitetarako balio duten ipuinak kontatzen saiatzen dela adierazten du elkarrizketa horretan, hau da, mezuren bat duten ipuinak edo baloreren bat lantzen lagundu dezaketenak: solidaritatea, lagunak izatea,... Idoiaren ipuinak entzun nahi dituenak, beraz, bihar bertan izango du horretarako aukera Alegiako Udal Liburutegian arratsaldeko 18:15etatik aurrera.